# Antxiñako fotografixia



## 1940ko Atzeko Kaleko jaiak



Atzeko Kaleko jaiak gainean ditugunez, Zubiata-rren fondotik atera ditugu 1940ko ospakizunei dagozkien bi argazki hauek. Urte hartako jaietan omenaldia egin zitzaion Udal Musika Bandari, "urtean zehar lortutako arrakasten errekonozimendu gisa" orduko programak adierazten duen moduan. Kafearekin eman zitzaion hasiera ospakizunari, eta, ondoren, "Beti-Aurrera" zortzikote famatuak abestu zuen bandakoen ohoretan. Bukatzeko, kalejira alaian joan ziren denak herriko plazaraino. Horrez gain, Txantxiku Gargantua, Pilota partiduak, Asto Lasterketak (Tetuango zirkuitoan), Zinta Karrerak (bizikletaz edo astoz), edota Uraingo Zezen-Festa izan zuten urte hartako jai egitarauan. Izan ere, Atzeko Kaleko jaiak beti izan dira bereziak.

**OHARRA:** Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, LAIXANera ekar dezakezu. Errekalde Herri Eskolan gaituzu, zatoz!

JON
ARGAZKIGINTZA
Kale Barria, 28 behea
Tfnoa: 78 24 81 OÑATI

MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK

OÑATI
Tfnoa.: 943 71 80 80
Faxa: 943 71 80 45
ARRASATE
Tfnoa.: 943 71 24 25
Faxa: 943 71 22 98
ARETXABALETA
Tfnoa.: 943 71 24 11
Faxa: 943 71 21 19